

MUNGIARRA

ZEMENDIA NOVIEMBRE 2022 ≈ 70. Zkia.



BEHARGINTZA, 20 URTE MUNGIARI INDARRA EMOTEN

MUNGIA ERAIKITEN
Torrebillea parkeko
jolasgune barria

NORTASUNA
Alemaniako kazetariak
Mungia ezagutzen

PARTE-HARTZEA
Aurrekontu
partehartzaileak
Aurrera doaz



MUNGIA
UDALA

www.mungia.eus



Kaixo mungiarra:

Zugana gatoz atzera, egiten dogunaren barri emoten. Orrialdeotan ikusiko dozunez, Mungiaiko Udalean ez gagoz geldi.

Gure herritarren beharizan, asmo eta gogoei ilusinoz erantzuteko ahalegina egiten dogu. Zalantzen aurrean ezin gara geldirik lotu.

Pertsonen ongizatean oinarritzen da gure eguneroko beharra, eta horren adibidea dira BEHARGINTZAK 20 urteotan egindako behar guztiak. Milaka pertsonari lagundu deutsagu, lanerako baldintzak hobetzen, lana topetan, euren proiektuak aurrera eroaten, herriko dendaria, ostalari, edota enpresari txiki eta ertainei aurrera egiten....

Beste alde batetik, ezin doguz aitatu barik itxi pertsona guztien bardintasunaren alde egiten doguzan ekintzak, edota gazte, nagusi edo beharizanean dagozanei laguntzeko egiten doguzanak. Berton, Saharan edo Beninen egon bardin. Hori bere gure ardurea da eta.

Ekintza horreek, herri inklusiboagoa eta solidarioagoa egiten gaitue eta, aldi berean, gure nortasuna indartzen dabe.

Gure nortasunaren beste alde garrantzitsu bi gure hizkuntza eta gure kultura dira, horra hor barriro EUSKARALDIA eta LORE JOKOAK. Parte hartu eta gozatu daigun gure izaera indartzen daben ekintzetan.

Azkenik, zerbitzu hobeak emoteko, azpiegiturak egokitzeko beharra ikusten dogu, eta horretan dihardugu gure INBERTSIO PLANAGAZ. Horren %80 inguru bideratuta dago eta, horren ganera, beste gai asko bere lantzen gabilz.

Ezbairen aurrean lana eta ilusinoa jartzen badoguz, seguru nago pausuak aurrerantzakoak izango dirana. Gu horretan gagoz. Mungiairren bizi-kalidadea hobetzeko konpromisoan aurrera egiten jarraitzen dogu!



Kaixo mungiarra:

Volvemos informándote acerca de lo que estamos haciendo en nuestro pueblo. En estas páginas comprobarás que en el Ayuntamiento de Mungia no paramos.

Nos esforzamos en satisfacer y dar respuesta a las necesidades, proyectos y deseos de las y los mungiaras. No podemos pararnos ante la incertidumbre.

Nuestro trabajo diario se basa en el bienestar de las personas, es un ejemplo claro de la gestión realizada durante estos 20 años en BEHARGINTZA. Hemos ayudado a miles de personas en la mejora de sus condiciones laborales, buscando empleo, ayudándoles a crear nuevos

proyectos, a comerciantes, a negocios de hostelería y a pequeñas y medianas empresas....

También en las acciones que realizamos por la igualdad de todas las personas, jóvenes, mayores o las que hacemos para ayudar a las más necesitadas. Lo mismo a las que están aquí, en el Sahara o en Benín.

Estas acciones, nos hacen un pueblo más inclusivo, solidario y al mismo tiempo fortalecen nuestra identidad.

Nuestra lengua y cultura son otros dos aspectos importantes de nuestra identidad. Llega una vez más EUSKARALDIA y LORE JOKOAK.

Participemos y gocemos en las actividades que fortalecen nuestra identidad.

Para concluir, para ofrecer mejores servicios, nos vemos en la obligación de adaptar nuestras infraestructuras, y en ello estamos trabajando desde el PLAN de INVERSIONES. De este plan se ha encauzado cerca del 80% y estamos trabajando en la materialización de otras acciones.

Si ante la adversidad trabajamos con ilusión, estoy seguro que seguiremos avanzando. En ello estamos. Trabajando por el compromiso que tenemos de mejorar la calidad de vida de las y los mungiaras

» Mungia iniciará los trámites para ejecutar los tres proyectos más votados en los presupuestos participativos



Finalizada la segunda fase de los presupuestos participativos, el Ayuntamiento iniciará los trámites para la ejecución de los tres mejor valorados por la ciudadanía que son: la creación de un itinerario botánico en el parque Uriguen, la adecuación de una zona para autocaravanas, y la realización de la feria de asociaciones de Mungia.

Un año más, las y los mungiaras se han implicado con los presupuestos participativos. Este tipo de procesos no tienen ningún recorrido si desde las instituciones no se consigue que la ciudadanía tome parte. A lo largo de los 14 días que ha estado abierta esta segunda parte del proceso, han participado un total de 311 personas.

En total, la ciudadanía de Mungia ha tenido que valorar y priorizar estos seis

proyectos: creación de un parque de parkour; adecuación de una zona para autocaravanas; creación de dos zonas de esparcimiento canino; realización de la feria de asociaciones de Mungia; creación de un itinerario botánico en el parque Uriguen; ginkana conoce Mungia.

Cumpliendo con su compromiso, el Ayuntamiento de Mungia pondrá en marcha los trámites para la ejecución de los tres más votados: la creación de un itinerario botánico en el parque Uriguen, la adecuación de una zona para autocaravanas, y la realización de la feria de asociaciones de Mungia, a los que en total destinará 54.000 euros.

Para finalizar, destacar que antes de que finalice el año ya sabremos cuales son las propuestas para el 2023.

Aurrera doaz aurrekontu parte-hartzaileetan boto gehien lortu dabezan hiru proiektuak

Mungia laster hasiko da herritarrek ondoen balorautako hiru proiektuak gauzatzeko izapideak egiten: Uriguen parkean ibilbide botanikoa sortzea, autokarabanetarako gunea egokitzea eta Mungiako alkarteen azokea egitea.

Danetara, Mungiako herritarrek sei proiektu honeek baloratu eta sailkatu behar izan dabez: parkour parkea sortzea; autokarabanetarako gunea egokitzea; txakurren aisialdirako gunea bi sortzea; Mungiako alkarteen azokea egitea; Uriguen parkean ibilbide botanikoa sortzea; Mungia ezagutzeko ginkanea sortzea.

» 2023ko egutegian Mungiarrek protagonista

"2023ko MungiHarro egutegia" osotzeko argazki-lehiaketa martxan dago. Oingo honetan, gai benetan polita dakar, "Mungiarrok" izango gara protagonistak eta!

Argazkietan, Mungiarrek agertuko dira gure herriko toki edo egoera desbardinetan; kasu baterako, Mungiako eraikinak, monumentuak edo geure ondareak erakusten, erosketak egiten edo dendetan saltzen, zeozer hartzen, gure herri edota auzoetako jaietan, mozorrotuta, kirola egiten, paseoa emoten, gure naturaguneetatik, Olentzero eta Mari Domingigaz, olgetan, gure kaleetan...

Lehiaketan 18 urtetik gorako edonork hartu ahal izango dau parte. Argazkiak aurkezteko epea urriaren 31ra arte luzatu da.

Boto gehien jasoten dauzan argazkiak Mungiako saltokietan erabilteko 300 euroko bonua hartuko dau, eta egutegiaren azalean agertuko da.

Hartu zeure argazki-makinea eta parte hartu 2023. urteko Mungiarrek egutegia janzteko ekimenean.



i

mungiarrek.egutegia@gmail.com
www.mungia.eus
mungiarrek.egutegia

» Behargintzak 20 urte bete dauz: lau mila lan-eskaintza baino gehiago bideratuz eta lan-merkaduan 1.500 lagun sartuz.



Mungialdeko Behargintza cumple 20 años

Behargintza da servicio a más de mil personas al año, con más de cuatro mil ofertas de empleo tramitadas y 1.500 personas que han accedido al mercado laboral durante estos 20 años. Asimismo, ha realizado 182 acciones formativas presenciales y se han formado más de 3.000 personas. Desde la puesta en marcha del Centro, se han realizado 356 talleres para mejora del acceso al empleo y emprendimiento con la participación de 2.154 personas. Respecto a emprendimientos empresariales se han atendido a 1.462 iniciativas y creado más de 400 negocios.

El Ayuntamiento ha puesto a disposición de las personas interesadas en participar en el diseño del nuevo PGOU la web www.mungiaplanorokorra.eus, donde la ciudadanía podrá encontrar el Manual de Participación o las conclusiones recogidas en el último proceso de participación además de muchas otras informaciones.

Hasikera baten, Mungialdeko bederatzi udalek osotzen eben Behargintza. 2005. urtean, barriz, Mungiako Udalaren titulartasuneko izatera etorri zan. Dana dala, eskualdeko ikuspegia galdu barik, Mungialde osoari zerbitzua emoten segidu dau ordurik hona. Lehen pausuak motelak izan ziran, lan-orientazioan eta ekintzailertzan lagundu eta enpresa-prospektazioari buruzko zerbitzu mugatuak emoten ziran.

Inguruko enplegarritasuna hobetzeko eta Mungialdeko ekonomia sustatzeko sortu zan, eta, 2008an, egoerea aldatu eta zerbitzuak zabaldu ebazan. Gaur egun, Behargintzak informazioa, aholkularitza, bitartekaritza, prestakuntza eta, orokorrean, lanpostua lortzeko edo lan-egoerea hobetzeko tresnak eskaintzen dauz. Auto-konsultarako ordenagailuak daukaz, eta enplegu-eskatzailerek Internet bidez egin leikiez kontsultak lan-bilatzailerean. Ganera, aholkularitza emoten deutse enpresei, dagozan baliabideak zein beharrak identifikatuta, bai eta udalerriko merkataritzeari, ostalaritzeari eta zerbitzuei bere.

Gaur egunean, urtean mila erabiltzaile baino gehiagori emoten deutse zerbitzua, eta 20 urteotan lau mila

lan-eskaintza baino gehiago bideratu eta lan-merkaduan 1.500 lagun sartu dauz. Erakundeak 182 prestakuntza-ekintza egin, eta 3.000 lagun baino gehiago prestau dauz. Hasi zanetik, 356 tailer egin dira lanerako sarbidea eta ekintzailertzea hobetzeko, 2.154 lagunek hartu dabe parte bertan. Enpresa-ekimenei jagokenez, 1.462 ekimeni erantzun jake, eta 400 negozio baino gehiago sortu.

Hori gitxi balitz, urteotan, zerbitzuak zabaldu eta azpiegiturak hobetu egin dira. Holan, Mungiako Oinarrizko Lanbide Heziketari instalazio barriak jarri jakoz Belako industrialdean, eta erakundeak prestakuntza-gelak, banakako arretarako bulegoak eta webgunea daukaz arreta osoagoa eskaintzeko.

Etorkizunari adi, etenbako hobekuntzearen eskutik joan behar dau, lan-arloan zein arlo ekonomikoan sortzen diran errokei erantzuteko. Gaur egun, Behargintzak emoten dauzan zerbitzuetatik aparte, errealidade aldagarria egokitzeo neurri barriak jarri beharko dauz martxan, beti bere, eskualdeko bizilagunen zerbitzura.

» Aprobada la modificación de la Ordenanza de terrazas

El Ayuntamiento aprueba en Pleno por mayoría la modificación de la Ordenanza de la instalación de terrazas en espacios de uso público. Las sugerencias de la hostelería mungiarra han sido tomadas todas en consideración y se regulan en la nueva ordenanza.

Esta ordenanza permite elementos no rígidos que cierren en caso de mal tiempo el hueco entre la protección lateral y el faldón del toldo. También se autorizará la instalación de soportes anclados a la fachada, condicionándose ésta a que el paso libre se ajuste a la normativa en materia de accesibilidad.

Excepcionalmente y si fuera conveniente la ubicación de la terraza junto a la fachada del establecimiento, se podrá autorizar respetándose la anchura de los pasos para personas en función de los anchos de acera. Además, deberá garantizar un paso mínimo y libre de cualquier obstáculo de dos metros.

En las zonas donde no exista mucho tráfico peatonal y rodado y no se pueda colocar una terraza en la acera frente al local, se podrá autorizar la instalación de una ocupando el aparcamiento frente al local y durante la



época estival comprendida entre el 15 de mayo y 15 de octubre. Estas terrazas se colocarán a nivel de la acera, mediante la colocación de una tarima de madera o similar y sobre ella se pondrá una valla sencilla de 1,00 m de altura aproximada que servirá como separador con la zona rodada.

El período de funcionamiento de las terrazas será en base a dos tipos de temporada: la anual del 1 de enero al 31 de diciembre y la estival, del 15 de mayo al 15 de octubre.

Terrazak jartea arautzen dauan Udal Ordenantzearen aldaketea onartu da

Mungiako Udalak gehiengoz onartu dau erabilera publikoko espazioetan terrazak jartea arautzen dauan Udal Ordenantzearen aldaketea. Ostalarien iradokizunak hartu dira kontuan, eta aldaketak ordenantza barrian arautuko dira.

» VUELVE MUNGIBONOA

Con el otoño, el Ayuntamiento lanzará una nueva campaña de bonos con el objetivo de dar un empujón al Comercio y Hostelería de nuestro pueblo, además de ayudar a la economía de los y las mungiarra gracias a los descuentos que se aplicarán en compras y consumos.

Destacar como novedad que, en esta edición, los negocios de hostelería también podrán sumarse a la iniciativa municipal.

Los bonos son un estímulo muy importante para la economía local, fomentan las compras y el consumo en Mungia.

Esta nueva campaña de bonos es fruto de reuniones periódicas y de colaboración con la Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Mungia para diseñar y analizar esta acción y otras que se puedan poner en marcha.

MungiaBonoa, tienen una excelente acogida tanto por parte del comercio, hostelería y servicios locales como por las personas consumidoras.

Bueltan da Mungibonoa

Udalak Mungibonoaren edizino barria jarriko dau martxan, merkataritzearen eta ostalaritzearen sektoreei eta mungiarren ekonomiei laguntzeko asmotan, erosketetan eta kontsumoetan egiten diran beherapenei esker.

Barritasun moduan, aitatu egin behar da oingoan ostalaritzako establezimientuek kanpaineagaz bat egiteko aukerea eukiko dabela.

» 2022ko MUNGILAN, enplegua sortzeko tresnea



Mungilan 2022, La semana del empleo

Del 29 de septiembre al 5 de octubre se celebró "Mungilan 2022". Durante la semana del empleo se realizaron diferentes actividades, con el objetivo de acercar el mercado laboral con encuentros y charlas abiertas ofrecidas por diferentes empresas, asesorando a las personas en búsqueda de empleo y crear sinergias para las personas emprendedoras. Además, de celebrarse el 20 aniversario de Mungialdeko Behargintza.

Irailaren 29tik urriaren 5era, 2022ko Mungilan programea egin da. Enpleguaren aste horrek honako helburu hau dauka: lan-merkadia hurreratzea hainbat enpresak eskainitako topaketa eta jardunaldi irekien bidez, lan-eskatzaileri aholkularitza emotea eta, ekintzaileentzako topaketen bitartez, sinergiak sortzea. Ganera, aurtengo edizioan, Mungialdeko Behargintzaren 20. urteurrena bete da.

Irailaren 29an, jarduerari emon jako hasiera, eta 20. urteurrena izan da nagusi. Eragile sozioekonomikoek parte hartzeko foroa egin da.

Urriaren 3an, enpresak izan dira protagonista, eta berbaldia eskaini dabe. Bertan, hain zuzen bere, Mungiako enpresek zer beharizan daukiezan argitu deutsee lan-eskatzaileri, bai eta gaur eguneko lan-merkadia zer premina daukazan eta zer profil behar diran bere.

Urriaren 4an, orientazio-gunea egin da, orientazioak lana topetako orduan daukan zeresana eta horregaz lotutako tresna garrantzitsuak azaltzeko: dinamika-tailerrak, curriculum, LinkedIn, Udal Gaztedi Mungialdea, MB formakuntzak eta Lanbide.

Azken egunean, urriaren 5ean, ekintzaileentzako topaketa egin da, eta eragile barriek berbaldi benetan interesgarria eskaini dabe.



» Enplegu Planak lanean hasten lagunduko deutse Mungiako lanbakoei

Mungiako Udalak, 2022rako Tokiko Enplegu Planaren barruan, udalerrian errolatutako 14 lanbako sei hilebetez kontratatetako hamar ekimen jarri gura dauz abian. Garatuko diran proiektuen jardura eremuak honako honeek izango dira: ingurumena, segurtasuna, tokiko administrazio-kudeaketa hobetzea, tokiko eremu publikoak eta enpresen lehiakortasuna. Egitasmo horri esker, Udalak Mungiako lanbakoei lanean hasten lagunduko deutse.

Udalak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta 2022ko Tokiko Ekintzen Programearen bidez garatuko dau proiektua. Era berean, Mungialdeko Behargintzaren, Mungiako Enplegu eta Toki Garapenerako Agentziaren laguntza tekniko jasoko dau.

Enplegua bultzatzeko tokiko ekintzetarako laguntza-programearen esparruan (2022-2023), hautaketa-prozesuak eta lan-kontratazioak 2022ko abenduan egitea aurreikusten dau Mungiako Udalak. Parte hartzaileei jagokenez, beharrezkoa izango da udalerrian errolatuta egotea eta enplegu-zerbitzu publikoetan lanbako moduan inskribiduta egotea.



El Plan de Empleo de Mungia facilitará el acceso al mercado laboral de personas desempleadas

El Ayuntamiento desarrolla dentro de su Plan de Empleo Local 2022 la puesta en marcha de diez iniciativas de mejora municipal que conllevarán la contratación durante seis meses de 14 personas desempleadas empadronadas en el municipio. Los proyectos a desarrollar abarcarán los ámbitos del medio ambiente, el de la seguridad, la mejora en la gestión administrativa local, de los espacios públicos y en el campo de la competitividad empresarial. Gracias a este proyecto.

» 1.000 euroko laguntza ekonomikoa enpresa-ideak lantzeko



Langabezian dagozan edo lanaldiaren %30 baino gutxiago lan egiten dabenean 10 ekintzailek parte hartu ahal izango dabe euren enpresa-ideak lantzeko eta negozio-plana garatzeko programan. Hile biko euren enpresa-proiektua garatuko dabe Mungialdeko Behargintzaren laguntza teknikoagaz, eta programautako jarduketetara joateko konpromisoa hartuko dabe (banakako saioak Behargintzako

edo taldeko tutoreakaz), euren enpresa-ekimenaren bideragarritasuna aztertzeko eta negozioaren ekintza-lerroak zehazteko. Era berean, programako baldintzak beteten dabenezan parte-hartzaileek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 1.000 euroko laguntza ekonomikoa bere hartuko dabe (ganera, %15 handituko da, andrea izan ezkerre; eta %15, 30 urtetik beherakoa izan ezkerre).

» Ayudas de 1.000€ para desarrollar tu idea empresarial

10 personas emprendedoras que se encuentren en situación de desempleo o trabajando menos del 30% de su jornada laboral. Podrán beneficiarse del programa para desarrollar su idea empresarial y realizar su plan de negocio.

Durante dos meses desarrollarán su proyecto empresarial con el apoyo técnico de Mungialdeko Behargintza, comprometiéndose a asistir a las sesiones individuales o grupales programadas con la persona tutora de Behargintza, con el objeto de analizar la viabilidad de su iniciativa empresarial y definir las líneas de acción de su negocio. A su vez, las personas participantes en el programa que cumplan con las condiciones del mismo accederán a una ayuda económica de 1.000€ de Lanbide- Servicio Vasco de Empleo. Esta ayuda se incrementará en un 15% si es mujer y si es menor de 30 años otro 15%.

Mungialdeko Behargintza

Tel. 946156244

e-maila:harrera@mungialdeko-behargintza.com



» 2022ko Suspertze Digitala: gure enpresen digitalizazioa bultzatzeko

2022ko Suspertze Digitala programea bederatzi garapen-agentziaren lankidetzaren bidez aurrera doan ekimena da eta, besteak beste, Mungialdeko Behargintzak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak bultzatzen dabe.

Ekimen honen helburua eskualdeko ETE-en digitalizazioa sustatzea da. Horretarako, 2022an, plan digitalei, LinkedIn planei... buruzko prestakuntza-tailerrak egiten dabilz. Ganera, aurtengo

akabuko hiru hilabetean, hiru digitalizazio-plan egingo jakez gaien sakondu gura dabene enpresei. Zementarien 10ean, enpresa txiki eta ertainei teknologia digitalen aplikazio praktikoari buruzko erakustailerra eskainiko jake.

Proiektu osoan, administrazio publikoek arlo horretan eskaintzen dabenezan programei eta laguntzei buruzko banakako informazioa eskaintzen jake industriako enpresa txiki eta ertainei.



» MUNGIako BENDEJA-SALTZAILEEI BURUZKO IKERKETEA

INVESTIGACIÓN SOBRE LAS VENDEJERAS DE MUNGIA

El trabajo de investigación de este año versará sobre el papel de las mungiaras que, actualmente o en épocas precedentes, han traído hasta la plaza de Mungia todo lo que la vida en el caserío ofrecía. Sus vivencias y sus percepciones como protagonistas, su labor como trasmisoras de este arte o tradición en nuestro país, su relación con la clientela, sus comienzos, su papel en la familia y en la sociedad, el baserri como forma de vida para las mujeres, el duro trabajo de la huerta, la cuadra... como una prolongación de las tareas del hogar.

Se ha seleccionado mediante concurso el proyecto *"Bendeja-saltzaileak Mungiako plazan"*, con una dotación económica de 3.600,00 euros.

Andren historia mendeetan egon da agirian imini barik; izan bere, oin dala hamarkada gitxi abiatu dira historiaren alde hori ezagutzen hasteko lehen pausak. Andrazkoek ama moduan gizartean izan daben garrantzia zalantzan iminterik ez dago, bai seme-alaben eta mendekoen jagole moduan eta bai familiari eusteko arduretan,



gizarte mailan aitorpen handirik egin ez jakon beharra izan dan arren. Hori baino gehiago, aurrean esandakoaz aparte, garapen politiko, zientifiko, sozial, kultural eta ekonomikoan ekarpenak egin ditue, gizonak idatzitako historian hori guztia agertu ez bada bere.

Hortik abiatuta, Udalak deialdia egin dau atzera bere, hain zuzen bere, gure historia, Mungiakoa, generoaren ikuspegitik irakurteko eta andren lana eta pentsakerea udalerrri honen esku jarri eta herri honi ekarpena egin deusien andra mungiarren protagonismoa berreskuratzeko; oingo honetan, ikerlana Mungiako bendeja-saltzaileen ganekoa izango da.

Holan, aurtengo ikerlanaren gai nagusia baserriko bizimoduak andra mungiarren

eskutik plazara ekarri dauan eta dakarren guztia izango da.

Gure protagonista horreen bizipenak eta eretxiak, gure herrialdean arte edo tradizio horri eusteko egiten daben lana, bezeroakaz daukien hartu-emona, euren hastapenak, familian eta gizartean daukien lekua, andrentzat ogibide dan baserria, soloko lan gogorra, gortea...; beti bere kontuan izanda, aurreko hori guztia etxeko lanen luzapena dala.

Ikerlana lehiaketa-prozedurearen bidez esleitu da, *"Bendeja-saltzaileak Mungiako plazan"* proiektua aukeratu da eta zuzkidura ekonomikoa 3.600,00 eurokoa izan da.

» 25 de noviembre, Día internacional contra la Violencia hacia las Mujeres



Como en otros municipios, en Mungia también se están produciendo ciertos procesos de toma de conciencia sobre la gravedad social que tiene la violencia contra las mujeres, lo cierto es que el problema dista mucho de estar resuelto aún.

Este año, volvemos a hacer un esfuerzo en situar a la violencia machista como un problema estructural, que requiere de la implicación de toda la sociedad. Así, hemos querido dar un paso más con nuestro punto morado "Mungiak indarkeriari ez!!", símbolo de una actitud de rechazo contra la violencia

machista, representando junto al punto a una mujer y a un hombre, simbolizando así la implicación de toda la sociedad, puesto que nadie debe faltar en este compromiso activo contra este tipo de violencia. El 25 de noviembre haremos que esta imagen tenga un peso importante en Mungia.

No dejaremos de lado tampoco otro sinfín de actividades (teatro de la asociación Diz-Diz, concurso Beldur Barik, talleres con la juventud, Declaración Institucional, exposiciones, actividades de calle, nuestra ya tradicional "M" vestida de morado, concentración por las mujeres víctimas y sobrevivientes, protocolos de respuesta...). Si bien estas son las actividades puntuales del mes de noviembre, a lo largo del año, no dejamos de ofrecer cada día atención y apoyo profesional, a esas mujeres y sus familias.

Zemendiaren 25a, Andren kontrako Indarkeriaren aurkako Eguna

Aurten, ahalegina egingo dogu barriro bere, indarkeria matxistea egiturazko arazoa dala eta gizarte osoa bertan inplikau behar dala gogoan hartzeko. Beste aurrerapausu bat emon gura dogu geure "Mungiak indarkeriari ez!!" puntu morearen bidez. Indarkeria matxistea gaitzesteko jarrerearen sinboloa da, eta, puntuagaz batera, andra bat eta gizon bat agertzen dira gizarte osoaren inplikazioaren adierazgarri, inor ezin dalako faltau holako indarkeriaren aurkako konpromiso aktibo honetan. Zemendiaren 25ean, irudi horrek Mungiak zeresan handia eukitea lortuko dogu.

» Mungiako Udalak lokala laga deutso Bizkaiko Foru Aldundiari EtxeTIC zentro barria egiteko

Mungia cede un local a Diputación para la construcción de un nuevo centro EtxeTIC para la comarca

Este nuevo centro de día con modelo de servicio mixto, se construirá en un local cedido por nuestro ayuntamiento en la calle Olalde Beresia. Este tendrá una superficie de 337 metros cuadrados y dará servicio a 414 personas usuarias potenciales de la comarca.

Es un servicio foral de apoyo a la atención domiciliaria, y ofrece apoyo presencial (en el propio centro) y telemático (desde casa a través de dispositivos tecnológicos).

Udalak lokala laga deutso Bizkaiko Foru Aldundiari, Mungian zentro barria eregiteko. EtxeTIC etxean emoten diran zainketetan laguntzeko doako foru-zerbitzua da. Horren bidez laguntza eskainiko jake mendekotasuna izan eta etxean segiduko daben pertsonen eta euren jagoleei; beti bere, EtxeTICen zentroaren eragin-eremuan bizi badira.

Lokal hori Olalde Beresia kaleko 3. zenbakiko etxeban dago, eta 337 m²-ko azalera dauka. Eguneko zentro barrirako inbersinoa



650.000 eurokoa izango da, eta obrak 2023ko bigarren seihilekorako egongo dira amaituta.

Instalazio barriak irisgarriak eta kale-mailakoak izango dira. Bertan, batetik, eguneko zentroko arretea emongo da mendekotasuna daukientzat (20 plaza gehienez) eta, bestetik, Mungialdeko eskualdean etxean dagozan mendekoei bere laguntza-zerbitzua eskainiko jake (ustezko 414 erabiltzaile); izan bere, teknologien bidez, monitorizata egongo dira eta lantzean

behinean baino ez dira joango zentrorra.

Horretara, EtxeTIC zentro barriak bere eragin-eremuan bizi diran Mungialdeko biztanleei emongo deute zerbitzua.

Zentro barri honek erabilera bateratuko hainbat gune eukiko dauz: erabiltzaileak banan-banan lan egiteko eremuak eta erabilera askotarako gune bat, besteak beste. Azken horretan, ganera, talde-jardueretarako gune bat eta atsedenerako, jantokirako zein biltegirako beste gune bat egongo dira.

» Firma de convenio con la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales para la cesión de un piso para casos de emergencia social

El Ayuntamiento ha firmado un convenio de cesión con la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales (formada por Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka y Mungia), para ceder un piso a la misma para que pueda prestar servicio de alojamiento a personas o unidades de convivencia que necesiten de una estancia de corta duración para poder hacer frente a una falta de alojamiento derivada de una situación de urgencia o emergencia social.

Este acuerdo es de vital importancia para las personas de la comarca que se puedan encontrar en ese tipo de situaciones,

desde el Ayuntamiento de Mungia se lleva a cabo una decidida apuesta en materia social, este convenio es otro ejemplo más de la preocupación y el interés que se muestra desde el consistorio por la situación delicada que puedan estar sufriendo vecinas y vecinos de Mungia.

El Ayuntamiento cederá con carácter gratuito el piso y el plazo de vigencia del convenio será de cuatro años con posibilidad de prórroga de otros cuatro. De esta manera, el acuerdo de las dos entidades garantizará un alojamiento a aquellas personas que se encuentren en una situación delicada.

Udalak hitzarmena sinatu dau Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunidadeagaz, gizarte-larrialdietarako etxebizitza lagateko


Udalak hitzarmena sinatu dau Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunidadeagaz, gizarte-larrialdietarako etxebizitza lagateko

Mungiako Udalak lagapen-hitzarmena sinatu dau Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunidadeagaz; hain zuzen bere, Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka eta Mungiako udallerri osotzen daben mankomunidade horrerri etxebizitza lagateko. Holan, gizarte-

larrialdiren baten ondorioz bizileku barik geratu diran pertsonen edo alkarbizitza-unidadeei iraupen laburreko egonaldirako bizitegi-zerbitzua eskaini ahal izango jake.

Hitzarmenak lau urteko indarraldia eukiko dau, eta beste lau urtez luzatzeko ere egongo da.

» 2022ko “Film Sozialak” Zine Ikusezinaren Jaialdia Mungian



KCD gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako “Film Sozialak” Zine Ikusezinaren Jaialdia zinea gizarte-eraldaketarako tresna moduan darabilen proiektua da, eta, horretarako, errealidade sozialeko bizipenetako gaitara hurreratzeko da. Generoen arteko bardintasun-falteak, giza eskubideen urraketea, bidebakokeria soziala, kultura artekotasuna, alkartasuna, alkarlana eta ingurumenaren errespetua. Gai horreek milioika lagunengan eragina izan arren, eta ez dira ohiko zine-pantailetan ikusten.

Jaialdi honen bidez, bete-betean sustatu eta gizarteratzen dira ikus-entzunezkoen munduan inoiz zine-ekoizpenerako sarbiderik euki ez daben talde sozialak eta erkidegoak.

El Festival de Cine Invisible “Film Sozialak”, es un proyecto que utiliza el cine como herramienta de transformación social, acercándose a realidades sociales como la falta de equidad entre géneros, las violaciones a los derechos humanos, la injusticia social, la interculturalidad, la solidaridad, la cooperación y el respeto al medio ambiente. Cuestiones que afectan a millones de personas y que no se proyectan en las pantallas de cine convencionales.

Este Festival, en el que Mungia ha participado por décimo año, ha tenido siempre una excelente acogida y es una inmejorable ocasión para poder ofrecer cine de calidad y con temática social en nuestro propio pueblo.

Se han proyectado 24 películas en Torrebillela Aretoa entre el 14 y 16 de octubre.

Mungiak hamargarren urtez hartu dau parte jaialdi honetan, eta, beti-beti, harrera bikaina euki dau. Izan bere, aukera parebakoa da, geure herrian bertan gai sozialak berbabide daukazan kalidadeko zinea eskaintzeko. Erakusgai jarten diran filmak tresna erakargarri baizen eraginkorrek dira, gure gizartean eragina daukien gaien inguruko topaketarako, eztabaidarako eta hausnarketarako gunea eratzeke.

Aurton, danetara, 24 film emon dira Torrebillela Aretoan, urriaren 14tik 16ra.

Horren ganera, Mungia BHI zentroan aurton bere astebetez emon dira balio handiko giza historiak azaltzen dabean eta ikasleei zein irakasleei alkarregaz hausnartzeko erea eskaintzen deuseen filmak.

Udalak jaialdiari eskaintzen deusazan laguntzearen eta konpromisoaren adierazgarri ezin hobea da zine-jaialdiaren amaieran banatzen diran sarietako bat babestea, jenteak ondoen balorautako filmaren kategoriakoa, hain zuzen bere.

» Atzera hasi gara Jagoten programeagaz!

Irailetik aurrera, atzera ekin deusagu Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunidadeko Jagoten Programeari. 60 urtetik gorako mendekoak eta euren jagoleak dira hartzaileak. Hona hemen programan eskaintzen diran jarduerak:

- Memoria-tailerra (psikoestimulazioa)
- Bizkarra jagoteko tailerra
- Berbaldiak
- Autolaguntzinorako taldea
- Ibilaldi terapeutikoak, banakako laguntzino psikologikoa eta prestakuntza laburrak

Informazio gehiago: 637.06.80.74

Arretea emoteko ordutegia: astelehen, eguazten eta barikuetan, 08:30etik 14:30era.



Cesión de un piso para casos de urgencia social

Se ha retomado el **programa Jagoten** de la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales, dirigido a mayores de 60 años en situación de dependencia y a sus personas cuidadoras. Las actividades programadas son: taller de memoria (psikoestimulación), taller de espalda, charlas, grupo de autoayuda, paseos terapéuticos, atención psicológica individual y píldoras formativas.

Para más información: 637.06.80.74
Horario de atención: lunes, miércoles y viernes de 08:30 a 14:30

» Saharako umeak osterabere etorri dira udan



Aurton, pandemiaren ondorioz urte bian etorri ezinik egon ostean, "Oporrak Bakean" programeari ekin jako atzera udako hila-beteetan, Tindufeko errefuxiaduen kanpalekuetako ume sahararrei harrerea emoteko.

Programa honen bidez, Saharako neska-mutilek basamortuko bizi-baldintza gogorretatik eta errefuxiaduen kanpalekueetatik aldenduta igaro leie udea. Hartzen dabezan bertoko familiek Saharako Herriko umeon bizi-baldintzak hobetu eta beste kultura baten biziten laguntzen deuse.

Oporrak Bidean

Este verano, tras dos años sin poder venir por culpa de la pandemia, ha vuelto el programa "Oporrak Bakean" para acoger a niñas y niños saharauis procedentes de los campamentos de refugio de Tinduf.

Para poder realizar este programa cada verano, son necesarias las familias de acogida, que de manera altruista

"Oporrak Bakean" programea udaro egia bihurtu daiten, harrera-familiak behar dira. Familiek, hain zuzen bere, neska-mutil horreek erabat modu altruistan hartu behar dabez etxean Mungiako Udalaren laguntzaz.

Aurtengo udan lau ume etorri dira Mungia, eta beste bat Maruri-Jatabera; danak zortzi urtekoak. Kasu honetan 5 harrera-familiek lehenengo biderrez hartu dabez ume sahararrak euren etxeetan. Umeak abuztuaren 31n bueltau ziran kanpalekuetara.

reciben en sus casas a estas niñas y niños como si fueran de su familia, con la colaboración del ayuntamiento. Este verano han venido cuatro niños a Mungia y uno a Maruri-Jatabe, todos de 8 años. Las 5 familias acogedoras han recibido en sus casas a estos niños por primera vez. Volvieron a los campamentos el día 31 de agosto.

CHARLA SOBRE CONVALIDACIÓN DE TÍTULOS



Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
Mancomunidad de Servicios Sociales

La Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales ha organizado un taller de la mano de la asociación Kosmopolis sobre homologación y convalidación de estudios como un paso necesario para el empleo y el autoempleo de nuestras vecinas y vecinos.

Este taller, que se ha celebrado el 19 de octubre por la tarde en la sala de exposiciones del Ayuntamiento de Mungia, ha estado dirigida a personas extranjeras con estudios en su país de origen (bachillerato, FP, universidad...). Personas inmigrantes que buscan empleo o personas autóctonas que quieren trabajar en el extranjero y extranjeras que quieran continuar su formación en Euskadi.

Ikasketak homologetako eta baliozkotzeko tailerra

Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunidadeak, Kosmopolis alkar-tearen laguntzaz, ikasketak homologetako eta baliozkotzeko tailerra antolatu dau Mungian, enplegurako eta autoenplegurako beharrezko urrats moduan.

Tailer hori jatorrizko herrialdean ikasketak (Batxilergoa, LH, unibersidadea...) egin dabezan atzeritarrentzat da. Tailer horren helburu dira lan bila dabilzan etorkinak, atzerrian lan egin gura daben bertokoak eta euren prestakuntzea Euskadin segidu gura daben atzerritarrak.

» Alemaniako kazetariak Mungian egon dira, Basquetourren eskutik, Cittaslow mobimentuko udalerrietako bat zuzenean ezagutzeko



Periodistas alemanes visitan Mungia para conocer de primera mano uno de los municipios que pertenecen al movimiento Cittaslow

Han experimentado de primera mano el ambiente de nuestro mercado, los productos de Km 0 de los caseríos. Después han visitado el Centro de Interpretación de la mitología vasca, donde se está Landetxo Goikoa, (la casa de Olentzero) caserío construido en 1510 y referente de la arquitectura rural vasca.

Como no podía ser de otra manera, la visita ha finalizado con una comida con productos locales en el txoko Guri Zer de Mungia.

Mungiako herriak antxinako tradizioei eta bizi-kalidade ezin hobeari eusteko apustua egin dauanez, Cittaslow mobimentuko kidea da. Izan bere, personen bizi-kalidadea hobetzea dauka helburu nagusi, lurraldeagaz, ingurumenagaz edo teknologia barriakaz lotutako proposamenak oinarritzat hartuta. Doktrina horrek kultura aniztasuna eta udalerrri baten ezaugarriak ospatzen eta babesten dauz.

Holan, Alemaniako hainbat kazetarik baldintza jakin batzuk beteten dabezan

ehunka udalerrri batzen dauzan nazinoarteko sare horretako kidea dan Mungia bisitau dabe. Cittaslow Italian sortutako mobimentua da.

Barriemoileek azokako giroaz eta baserritarrek saltzen dabezan 0 kilometroko produktu freskoez gozetako aukerea euki dabe. Gero, Euskadiko Euskal Mitologiaren Interpretazinarako Zentro bakarrean egon dira, 1510eko baserria eta euskal landa-arkitekturearen erreferentea dan Landetxo Goikoa (Olentzeroren etxean), alegia.

Bestetik, zelan ez, bisitaldia amaitzeko, bertoko produktuez egindako bazkaria eskaini da Guri Zer txokoan, Bizkaiko Slow Food mobimentuaren lehenengo batzarrak egin ziran lekuan, hain zuzen bere

Mungiak kalidadeko bizi-filosofia lasaiaren oinarri diran hainbat eta hainbat elementu daukaz. Berezko nortasun zabalean islatzen diran antxinako ohituren eta gaur egungo ohituren sarea.

» Mungiako Lauaxeta Olerki Lehiaketaren aurtengo edizinoak "Langille eraildu bati" izeneko olerkia hartuko dau abiapuntutzat programeagaz!

LAUXETA OLERKI LEHIAKETA 2022
urrian eta zemendian

"Ezin esan dena esaten saiatzea da poesia"
Xabier Lete

Ezinezko lan horretan ahalginduten jarraitzeko beste aukera bat eskainiko deusku aurtien bere Lauaxetak.

Aurtengo gaia: "Langille eraildu bati"

Lanak aurkezteko epea: urriaren 1etik
zemendiaren 15era.

Oinarriak: www.mungia.eus (Irailaren 24tik aurrera).

Mungiako Udalak hamabosgarren Lauaxeta Olerki Lehiaketea aurkeztu dau. Aurtengoan, Lauaxetaren olerki ezagunenetariko bat izango da gaia: "Langille eraildu bati". Parte-hartzaileek poema horren inguruko interpretazino askea egin beharko dabe euren olerkietan. Lanak aurkezteko akabuko eguna zemendiaren 15a izango da. Euskera hutsean sortutako testuak

aurkeztuko dira, eta bakotzak gura dauan neurria, errima eta ahapaldi-kopurua erabiliko dauz. Konposizinoek 100 bertso-lerroko testua eukiko dabe gitxienez; eta 200ekoa, gehienez.

Lehiaketako irabazleak 800 euroko saria jasoko dau; eta bigarrenak, 500 eurokoa.

Lanak jatorrizkoak izan beharko dira eta aurretiazko beste lehiaketa edo sariketa batean saririk lortu ez dabenak. Bestetik, ez dira jatorrizkotzat hartuko beste hizkuntza batetik itzulitako beharrak.

Lanak paperean eta euskarri digitalean aurkeztu beharko dira, lerroen artean tarte bikotxa itxi beharko da eta gutun zarratuan sartuko dira egilearen daturik jarri barik. Eskutitzaren barruan, beste gutun-azal bat

sartu beharko da, eta lema zein ezizena idatzi beharko dira kanpoko aldean; eta honako datu honeek, barruko aldean: izen-abizenak eta helbide osoa, helbide elektronikoa, telefonoa eta egilearen aitortpena (idazlana originala, argitara emon bakoa, itzuli bakoa eta beste lehiaketa batean saririk jaso bakoa dala aitortuta).

Mungiako Udalak lanak aurkezteko bide desbardinak prestau dauz: Udalaren Egoitza Elektronikoa, posta arrunta (Mungiako Udala, Euskera Saila. Trobika 1, 48100, Mungia) eta Mungiako Udaleko HAZ bulegoa, beti bere, alde zuzenetik hitzordua eskatuta 94 674 12 16 telefonora deituta.

» Lore Jokoak badatoz barrian, geure buruaz harro egoteko eguna



Urte biko geldialdia egin ostean, 2022. urte honetan barriro ospatuko dogu Lore Jokoen eguna, urriko akabuko domekan, hilaren 30ean.

Aurtengoan, Bendejerak izango da gaia, eta, urtero lez, egun honetan eta 2000. urtean abian jarri genduanetik, Mungiako gune historikoko leku desbardinak edo geure eguneroko bizimoduko jazoerak erakutsiko doguz; herritar guztientzat, baina, betez bere, gazteentzat. Herritarrok parte hartzeko eguna da, danok izango dogu lekua egun horretarako programearen

barruan antolatzen diran parte hartzekou. Ez dira sekula faltau izan herriko taldeek sortutako antxinako eszenak, txistularien kalejirak, trikitixea, folklore-emonaldiak, bazkaria, herri-jokoak, erromeria, eta beste horrenbeste ekintza, dana giro ezin ederragoan.

Mungiarrok alkartzeko eta parte hartzeko eguna da, antxinako moduan janzteko egun aproposa; geure ohiturakaz harro egoteko eta ondo pasetako gune berezia.

Vuelve Lore Jokoak

Este año 2022, después de un parón de 2 años (2020 y 2021) vuelve la celebración de Lore Jokoak. Se celebrará el último domingo de octubre, día 30.

Este año el tema será BENDEJERAK, un poco en unión con el tema de las Jornadas Europeas del Patrimonio, que es el Patrimonio SOSTENIBLE.

En este día festivo se escenifican diferentes momentos históricos de Mungia o escenas de la vida cotidiana del pasado de nuestro municipio, para así, darlos a conocer a la ciudadanía y en especial a las generaciones más jóvenes.

» EUSKARALDIA: BERBAZ EKITEKO GARAIA



"Euskal Herriko kaleak beteko doguz barriro, euskeraz berba egitea inoiz baino errazagoa izan daiten". Horixe da, antolaketa-taldearen esanetan, aurtun –zemendiaren 18tik abenduaren 2ra– egingo dan Euskaraldiaren helburu nagusia. Izan be, pandemiak guztiz

baldintzatu eban 2020ko edizinoaren ostean, aurtengo Euskaraldia indartsu dator Euskal Herri osora ezeze, Mungiara bere bai.

Argi dago zer dan egin beharrekoa: konpromisoa hartzea eta hamabost egun horreetan gehiago egitea euskeraz eta ahal danik eta jente gehienagaz. Bai, bai, norberak konpromisoa hartzea eta ahalegina egitea, merezidu daben gauza guztiakaz egin behar dan lez.

Aurreko edizinoan lez, herritarrek eta entidadeek (alkarteak, dendak, zerbitzuak, tabernak...) hartu ahal izango dabe parte. Entidadeek urriaren 15era arte izango dabe izena emoteko edo baiezteko epea; herritarrek, barriz, irailaren 28tik azaroaren 17ra arte.

Horretarako, Talde Eragileak beharrezkoa dan guztia dauka prest: informazino-orriak, lokala (izena emoteko eta txapak batzeko) eta, batez bere, herritarrei dudak

argitzeko lagun-talde ederra. Berrogeitik gora lagun ibiliko dira ekintzak antolatzen, lokalean txandak egiten, bideoetan parte hartzen... Zeuk bere parte hartu gura badozu, hartu-emonetan jarri herriko Talde Eragileagaz eta hasi, era askotako zereginak dagoz-eta.

Hemendik abenduaren 2ra, egun zaitez adi, telefonotik, whatsappetik, sare sozialetatik eta e-postatik helduko jatzulako informazino guztia. Dana dala, informazino gehiago gura badozu, jo eizu lokalera (Alkartasuna kalea, lehengo LekuOna) edo deitu 688 74 51 09 telefonora.

Hamabost egun horreetan, nork bere esku dagoan guztia egingo dau. Asmoa horixe berori da, behintzat, baina ia-ia garrantzitsuagoak dira ordura arte mungiarrok alkarlanean egiten gabilzan beharra eta bidea.

» EUSKERA FOROAK EGINGO DOGUZ BARRIRO, PARTE HARTU EIZU!



Indarrean dagoan ESEP (Euskera Sustatzeko Ekintza Plana) datorren urtean amaituko dala eta, hausnarketa-prozesuari ekitea erabagi da, orain arte egindakoa baloretako eta, batez bere, hurrengo urteetan egin beharreko bidea zehazteko.

Euskaraldirako prestetan gabilzan sasoi honetan, kalean inoiz baino biziago dagoz euskerearen inguruko gaiak: txapea jantziko dogun ala ez, nahikoa egiten dan ala ez, hau edo bestea egin beharko ete litzatekean erabilera indartzeko... Ba, mungiar askoren ahotan dabilzan ardura, interes eta eretxi

horreek dirala eta, datozen egunetan Euskera Foroak egingo doguz EMUN aholkularitzearen laguntzaz.

Lehenengo eta behin, urriaren amaieran ekingo jako eretxi-bilketari, galdetegiaren bidez. Galderei erantzuteko hainbat bide eskainiko dira: etxeko buzoietara helduko dan paperezko galdetegia, whatsapp bidezkoa, e-postaz egingo dana... Eretxi horreek batu ostean (zemendiaren 15era arte bialdu ahal izango dira), aurrez aurreko saioa egingo da zemendiaren 22an, Olalde aretoan, 18:00etatik 20:00etara.

Ez dira izango Mungiako lehenengo Euskera Foroak, 2011n eta 2017an bere egin ziralako. Foro hareetan batutako informazioa oso erabilgarria izan da urteotan, baita bertan proponidutako ekintzak bere (eurotako batzuek emoitza politak euki dabez). Aurten bere, horixe gurako geunke.

Halanda ze, zeresanik, usterik edo proposamenik badaukazu, hartu eizu parte, idea handiak eta txikerrak beharko dira-eta, danetarik.

» ESKOLEN TALDEAK 20 URTE BETEKO DAUZ AURTEN



Herrian, lantalde eta batzorde asko dagoz, eta eurotako bat dogu euskerako Eskolen Lantaldea.

Lantalde hau 2002an sortu zan, euskerearen sustapenean ikastetxeen eta herriaren arteko zubi-lana egiteko asmotan. Ikastetxeak oinarri-oinarrizko eragile dira umeak eta gazteak –eta, horren ondorioz,

gizartea– euskalduntzeko prozesuan. Halanda bere, datuek eta esperientziak argi itxi dabe ikastetxeak nahikoa ez dirana euskalduntze-prozesua osorik bermatzeko. Hori dala eta, beharrezkotzat jo zan herri-mailako ekimenak eta ikastetxe-mailakoak bateratzea eta, euskera-kontuetan, behintzat, ahal danik eta ekimen gehien gauzatzea herriko ikastetxe guztiek batera. Gauza txikiak, bai, baina lotu barik, euri fina lez. Horretan pausutxu bat egiteko asmotan sortu zan Eskolen Lantaldea.

2002tik hona, urtero-urtero, 8 bat batzar egin izan dauz lantaldeak, ezelango eten barik. Batzar horreetan, ikastetxe guztietako euskera-normalkuntzako irakasle arduradunek parte hartu eta parte hartzen dabe. Lantaldearen beharrak emaitza oparoa euki dau. Seguru ekimen

honeetarik batzuen entzutea badaukazuna: kaleko paisaiaren neurketea, erabilerearen kale-neurketea, erreportaje eta ipuin lehiaketea, “Euskaraz bizi nahi dut” herri-martxea, gazteak kantuan (kanta-bildumea), “Mihiluze” lehiaketea, “Gurot” telefono-aplikazioa, “Punta-puntakoa” berbaldi-zikloa, “Euskerearen kriselua”, Bertsolaritza eskoletan, “Asau barik” ginkana birtuala, euskerazko produktuen katalogoa...

Lantaldeak berak, Euskera Sailagaz alkarlanean, proponidu eta gauzatu dauzan proiektuok behar handia eskatu deutsee ikastetxeei eta euren ordezkari (hainbat irakasle pasau dira bertatik urteotan). Halanda ze, merezidu dau, bai, urtebetetze berezi hau gogoan eukitea eta egindako beharragaitik –eta egiten segiduko dabenagaitik– eskerrak emotea.

» Mungiako Udalak inguruagaz bat datorren umeentzako jolasgune barria estreinau dau Torrebillela parkean



Mungiako Udalak umeentzako jolasgune barria zabaldu dau Torrebillela parkean. Egitura horri esker, batetik, mungiarrek aire zabalean ondo pasetako gunek barria daukie, eta, bestetik, urteen joan-etorriagaitik hondatuta egozan umeentzako jolasak kendu ahal izan dira. Proiektu horrek udalerraren beharrei eta udalak partaidetza bidezko 2019ko aurrekontuetan hartutako konpromisoari erantzun deitsee.

Umeentzako jolasgune barri hori adinaren

arabera banatutako hiru sektorek osotzen dabe. 6 eta 12 urte arteko umeentzako gunean oreka-jolasak, txirristak, igoteko jolasak eta aisialdirako gune bat dagoz. 3 eta 6 urte arteko txikientzako gunean oreka-jolasak, txirristak eta hainbat jolas sinboliko dagoz, eta, azkenik, gune barri horrek 30 metro luzeko tirolina dauka. Hori guztia Torrebillela parkeko ingurune naturalean integratuta dago. Aisialdiko eskaintza zabaltzea eta hobetzea da helburua, jolas inklusiboak eukiko dauzan

eta naturaz inguratuta egongo dan jolas-eremu barria sortzeko. Azpiegiturak eta kanpoko irisgarritasuna hobetu dira, inguruneagaz bat datozaan erronka fisiko barriak sortu gunean. Orokorrean, berezko nortasuna daukan gunea da.

Holan, udalak Mungiako hainbat lekutan dagozan umeentzako jolasguneak hobetzeko politikea gauzatzen segiduko dau. Torrebillelako jolasgune honetarako obrea 124.021,11 eurotan esleitu da (BEZa barne).

Mungia estrena una nueva zona de juegos infantiles acorde al entorno del parque Torrebillela

Este espacio permite, por un lado, ofrecer una nueva zona de ocio al aire libre y, por otro, retirar los juegos que estaban deteriorados por el paso del tiempo. Este proyecto, responde a las necesidades del municipio, respondiendo al compromiso adquirido por el Consistorio en los presupuestos participativos de 2019.

Esta nueva zona de juegos infantiles está compuesta por tres sectores. Uno para niñas y niños de entre 6 y 12 años con juegos de equilibrio, toboganes, juegos trepadores y un espacio de esparcimiento. El área para las y los jóvenes de entre 3 y 6 años, dispone de juegos de equilibrios, toboganes y diversos juegos simbólicos y, por último, cuenta con una tirolina de 30 metros de largo. Todo ello, integrado en el entorno natural del parque Torrebillela.

El Ayuntamiento sigue mejorando las zonas de juegos infantiles de Mungia. La obra de esta zona de juegos de Torrebillela ha sido adjudicada por 124.021,11 euros.

» Kaleko komun barriak



Mungiak komun publiko barri bi jarri dauz: bata, Atxurizubi parkean; eta bestea, Larretan Skate parkearen inguruan.

Komun barri honeek lagun asko ibiltan dan leku bitan kokatu dira, biak bidegorrietatik paraje dagoz-eta.


» Mungiako kaleak eta bideak barriztetan



Gitxi-gitxika, Mungiako kale eta bideek aurpegi barria daukie udala asfaltetako egiten dabilan lanei esker.

Aurtengo lehen zatian, herri barruko kale honeek asfaltatu dira: Landetxo kalea, Usandizaga Eresgille kalea, Palado kalea, Sagardi kalea, Elorduigoitia kalea, Aritz bidea eta Neurketa kalea; eta, auzoetan, barriz: Markaida bidea eta San Martin bidea.

Lanak Asfaltia enpreseagaz egin dira, eta esleipena 406.856,90 eurokoa izan da. Danetara, alfastetako egindako lanak



kontuan hartuta, 11.081,5 m² egin dira.

2022ko urtearen bigarren zatian, 21.430 m² asfaltauko dira, lanen inbersinoa 703.034,22 eurokoa izango da eta Orsa enpreseari esleitu jakoz.

Herri barruko tokiak honeek izango dira: Aurelio Artetxe aparkalekua, Errekatxu kalea, Lauaxeta Olerkariko biribilgunea, Goggomovil biribilgunea eta Bermeo bidea; eta, auzoetan, barriz: Atxuri bidea, San Martin bidea (II. fasea), Elorriaga bidea, Arritugane bidea eta Derio bidea.



Asfaltado de calles y caminos

En la primera mitad del año, se han asfaltado 11.081,5 m² de calles y caminos de Mungia con un presupuesto de 406.856,90 euros habiéndose asfaltado las siguientes calles:

Landetxo kalea, Usandizaga Eresgille kalea, Palado kalea, Sagardi kalea, Elorduigoitia kalea, Aritz bidea y Neurketa kalea. Además en barrios: Markaida bidea y San Martin bidea

En la segunda mitad del año se están asfaltando otros 21.430 m² que suponen una inversión de 703.034,22 euros.

En el casco urbano: Aurelio Artetxe aparkalekua, Errekatxu kalea, Lauaxeta Olerkariko biribilgunea, Goggomovil biribilgunea y Bermeo bidea. En barrios, se está pavimentando:

Atxuri bidea, San Martin bidea (II. fasea), Elorriaga bidea, Arritugane bidea y Derio bidea.

» Pronto se abrirá el campo de fútbol de Larreta

El campo de fútbol de Larreta ha visto mejoradas sus instalaciones con las obras que se han realizado:

En primer lugar, se ha contado con una bomba de agua instalada en la cisterna para accionar el riego realizando la prueba de su funcionamiento y determinar así la adecuada nivelación del suelo para recibir el césped. Después de estas comprobaciones, se ha recibido la superficie del campo con tela asfáltica, incluyendo la conexión

de la toma de agua, se ha mejorado la iluminación con una más eficiente colocándose luces LED en las torres del campo. El campo de Larreta cuenta con un nuevo césped además de porterías y una nueva instalación de redes.

El campo de Larreta está listo para el disfrute y práctica del deporte. Mungia sigue trabajando en la renovación de sus servicios e instalaciones para ofrecer siempre un servicio adecuado a las y los mungiarras.

Larretako futbol-zelaia barriztauta

Larretako futbol-zelaia barriztetako lanak egin dira, zelaiko zerbitzuak hobetzeko asmotan. Hauxe da egin dana: zelaia urenzakea hobetzeko ur-bonba, tela asfaltikoa, bedar barria, LED argiak eta ate barriak.

Dana dago prest kirola kalidadeko zelaian egiteko.

» Kiroldegia estalki eta gela barriak eukiko dauz laster

Mungiako Udal Kiroldegia obretan dago, instalazino hori hobetzeko eta bertako terrazea egokitzeke.

Lan honen bidez, diseinu kurboko bolumen barria egingo da, eta egurrezko egituraren ereigiko da, erabiltzaileek eremu atseginean jarduteko aukerea euki daien.

Gune barri hori lau jarduera-aretotan banatuko da: nagusi biek bat egiteko aukerea eukiko dabe, eta igerilekura zabaltzen

danak toki bakarra euki leike terrazegaz.

Gela barri honen azalarea 48,55 m2 eta 75,10 m2 artekoa izango da.

Lan honek 498.996,75 €-ko aurrekontua daukie, eta Construcciones Zabaldi SL enpreari esleitu jakoz.

Lanak abuztuaren 29an hasi ziran, eta 6 hilebeteko epean amaituko dira.



Nueva cubierta en el Polideportivo

El ayuntamiento Mungia está renovando la cubierta del polideportivo con el objeto de mejorar las instalaciones deportivas y la terraza de las mismas.

Con esta obra, se construirá una estructura de madera en forma de cubo, en la que las personas usuarias disfrutarán de nuevos espacios para disfrutar de actividades.

El presupuesto de este trabajo es de 498.996,75 € y se ha adjudicado a Construcciones Zabaldi, SL.

» Mungiako Udalak udal-eraikinetako argiak amatetan dauz, energia aurrezten laguntzeko

Mungiak beste pausu bat emon dau energia aurrezteko, eta horixe da klima-aldaketea geldiarazoteko modu bakarra, gure kontsumo-ereduak aldatzea, alegia. Halanda ze, udalarentzat ezinbestekoa da eraginkortasun energetikoa areagotzea eta Estaduko Gobernuak ezarritako jarraibideak betetea, 22:00etatik aurrera okupau bako eraikin publikoetako argiak amatetako agintzen dau-eta. Holan, bada, udaletxeko, Agirre jauregiko, Torrebillela Kultur Etxeko eta Udal Kiroldegiko fatxadetako argiak amatetan dauz.

Udalak, bere aldetik, Estaduko Gobernuak sustatutako neurriak bere ezarriko dauz, udako aire girotuaren eta neguko berokuntzearen erabilera eraginkorrarearen bidez bere eraikinetako energia-aurrezkia bultzatzeko asmotan. Zentzun horretan, ezarritako jarraibideen arabera, aire girotuko hotza 27 gradura mugatuko da, temperatura horretatik jatsi barik. Eraikinetako berogailuek, barriz, ezin izango dabe 19 gradutik gorako temperaturarik euki neguan.



El Ayuntamiento apaga la iluminación de edificios municipales para contribuir al ahorro de energía

Mungia da otro paso más en el ahorro de energía y la única forma de detener el cambio climático pasa por cambiar nuestros patrones de consumo. Así, ha visto imprescindible aumentar la eficiencia energética y en cumplimiento con las directrices marcadas por el Gobierno del Estado que ordena el apagón de edificios públicos desocupados a partir de las 22:00h, ha dejado de iluminar las fachadas del Ayuntamiento, Agirre Jauregia, Torrebillela Kultur Etxea y el Polideportivo municipal.

Por otra parte, el Ayuntamiento aplicará también las medidas impulsadas por el Gobierno central para el ahorro energético con el uso más eficiente del aire acondicionado en verano y de la calefacción en invierno dentro de sus edificios. La refrigeración por aire acondicionado estará limitada a 27 grados; mientras que las calefacciones de los edificios no podrán superar los 19 grados este invierno.

» Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoa lehengo anbulatorioan egongo dira




Mungiarrei emoten jakezan zerbitzuak hobetzeko asmoz, lehen anbulatorioa izan zan eraikinera eroango dira Gizarte Zerbitzuen Udaltzaingoaren bulego barriak.

Hona hemen instalazino barriokaz lortu gura dana: doazenak ahal danik eta errazen ailegetea bertara, hau da, irisgarritasuna bermatzea; langileen beharretara egokitzea eta gaur egun banan dagozan lokal desbardinak leku berean batzea.

Gizarte Zerbitzuak goiko solairu bietan egongo dira, eta Udaltzaingoa, barriz, beheko solairuan. Sotoa instalazinoetarako eta biltegiarako erabiliko da.

Lizitazinora aurkeztu diran enpresen artean, ALTUNA & URÍA izan da balorazino onena lortu dauana; bere eskaintza ekonomikoa 2.326.337,77 €-koa izan da (BEZ barik).

Obrak irailaren 19an hasi dira, eta 12 hilabeteko epean amaituko da.



Laukarizko eskolak bere barriztau egin dira

Laukarizko eskoletan bere zaharbarritzeko lanak egin dira; behea margotu da eta jolasgune barria jarri da. Danetara, 15.445,65 euroko inbersinoa (BEZ barne) egin dau Udalak.


Futbol-zelaiko harmaila barriak jarteko

Lizitazio-prozesua zabaldu eta enpresa bakar bat aurkeztu zan. Enpresa horri otsailean esleitu jakon kontratua eta lanak maiatzean hasteko adostu eban Udalak enpresagaz futbol zelaiko eguneroko jarduerari ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko. Baina, materialen prezioaren igoerea dala medio, ez dabe obrarik egingo. Hori dala eta, Mungiako Udalak kontratua bertan-behera ixteko prozesua hasi dau. Lizitazio barria egiteko pleguak prest dagoz, eta aurrekontua eguneratu egingo da, baina, harik eta gaur egun indarrean dagoana behin betiko eran indar barik itxi arte, ezin izango da kontratu barririk sinatu.



Laukarizko eta Larrauriko kanposantuetako hazurtokiak

Udal Hilerrien Zerbitzua hobetzeko asmotan, Laukarizko eta Larrauriko hilerriak handitzeko lanak egin dauz Udalak. Laukarizekoan 12 horma-hilobi eta 28 hazurtoki jarri dira; Larrauriko kanposantuan, barriz, 64 hazurtoki.



Eficiencia energética:

Dentro de la campaña de eficiencia energética del alumbrado público de 2022 se están cambiando a tecnología LED 300 puntos de iluminación en diferentes calles de Mungia: los proyectores se están colocando en: San Pedro, parking de la estación, Lauaxeta Olerkari, parque

Uriguen, Guarderia y los de Intxausti Eresgile

Iluminación vial de las calles Aritz bidea, Sabino Arana, Aita Elorriaga y Luisene.

Iluminación peatonal en Intxausti Eresgile y en Andra Mari.

» UDAL FOROA

» Mungiako ikasleak Udalagaz batzartu dira euren proposamenak Udal Foroaren bidez aurkezteko

Mungiako Udalak Udal Foroa egin dau Bentades, Larramendi eta BHI-Mungiako ikastetxeetako ikasleakaz. Ekitaldian, Ager Izagirre Mungiako alkateak, Alaitz Erkoreka Lurralde eta Ingurumen Saileko alkateordeak eta udal-teknikari bik hartu dabe parte.

Hiru ikastetxeetako ikasleek ikasturtean egindako lanaren barri emon deutsee udal-ordezkariei, baita Garapen Jasangarriko 11. Helburuaren inguruan egiten dabezan proposamenen barri bere (uriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea). Zehatzagora joanda, Mungiak hainbat

eremutan daukan egoerea aztertu dabe; adibidez, ibaia, mobikortasuna, berdeguneak, zerbitzu publikoak, ekipamentuak...

Parte hartu daben hiru ikastetxeek udalerrri eta erkidego jasangarriaren ideia landu dabe. Lan horren ondorioz, hainbat konpromiso hartu dira: hezkuntza-erkidego osoa informetea, sentsibilizazetea eta ekintzetan inpliketea eta Mungiaren jasangarritasunaren babesa eta hobekuntzea sustatzea. Bestetik, udalak ildo horretan gauzatu diran ekintzen barri emon dau.

» OINEZ BUSA



Ikasturtearen hasieran, irailaren 22an, Oinez Busa egin genduan, 2030erako Eskola Agendeari ondoetorria emateko. Hori dala eta, Haur Hezkuntzako 5 urtekoak eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak herriko plazan egozanez, alkateak berbalditxua egin eutsen, eta, bide batez, honako honeek aitatu zituan: mobikortasuna, "Uri eta Erkidego Jasangarriak" eta ikasturte barriari eta, batez be, 2030erako Eskola Agendeari ondoetorria emotea.

Oinez Busaren bidez, helburu honeek lortu gura doguz:

- Kutsadura bako ereduak sustatzea.
- Ohiko joan-etorriak era jasangarrian eta ingurumena jagonda sustatzea.
- Ikasleen artean, ohitura osasuntsuak sustatzea; kasurako, eguneroko joan-etorriak oinez edo bizikletaz egitea eta, bide batez, sedentarisismoa ekiditea.
- Autoaren larregizko erabilereak dakarzan kutsadurea, zaratea... gitxitzea.
- Sasoiko eta bertoko produktuen kontsumoari indarra emotea.
- Gazteenei behar besteko aukerea emotea, era osasuntsuan eta ariketa fisikoaren bidez ingurumenagaz lotutako ekintzez gozetako; esate baterako, proiektu honetan, eskolatik oinez etortea.
- Herriko eskolen arteko alkarlana bultzatzea.

» Nekazaritza Ekologikoaren XIX. Azokea



Aurton be, Mungiako Nekazaritza Ekologikoaren XIX. Azokea egin dogu. Produktu ekologikoen salmentea, dastaketea eta nekazaritza ekologikoari buruzko informazioa zabaltzen dauzan gure azokea.

Baratzetik ekarri barri dan jeneroa salgai egon da Foruen Plazan; baita produktu ekologikoen ganeko tailerrak bere egin dira, eta hiru otzara zozketatu dira saltokietan erosketak egin dabezanen artean. Ganera, interesa euki dabenek nekazaritza ekologikoari buruzko informazioa eskuratu dabe.

» Mungialdeko udalek eta Bizkaiko Foru Aldundiak lana sustatzeko 2022-2023ko Udal Gaztedi bideratuko dabe

Mungiak eta eskualdeko udalek, Bizkaiko Foru Aldundiagaz batera, 2022-2023ko Udal Gaztedi proiektua jarriko dabe martxan, gazteen artean enpleoa sustatzeko. Programea eskualdeko udal guztiek aktibauko dabe batera, euren beharrei erantzuteko asmotan. Parte-hartzaileek eskualdean errolatuta eta Lanbiden zein Mungialdeko Behargintzan izena emonda egon beharko dabe.

Planak hiru ekintza batzen dauz: enplegurako prestakuntza-programea, eskualdeko enpresetan lanetik kanpoko praktikak egiteko bekak eta Mungialdeko gazte ekintzaileentzako enpresa-finkapenerako laguntza-proiektua.

Edizino honetarako proposatu danna prestakuntzea Zaintzea, segurtasun pribadua eta lehergailuen babesa izan da; 30 urtetik beherako 12 lagunek hartuko dabe parte bertan. Prestakuntzea amaitutakoan, zortzik diruz lagundutako 6 hilebeteko praktikaldiko lan-kontratua lortu ahal izango dabe programearen bidez. Ganera, aurtun, sei beka eskainiko jakez, hilean 900 eurokoak, lanik ez daukien gazteei.

Bekak 18-30 urtekoentzat dira, eta lanetik kanpoko bekadun praktikak egiteko errea emongo dabe, lehenengo lan-esperientzia errazteko eta, ostean, hobeto laneratzeko.

Los Ayuntamientos de Mungialdea y Diputación ponen en marcha el proyecto Udal Gaztedi 2022-2023 para impulsar el empleo juvenil

El programa contiene tres actuaciones: un plan de formación para el empleo con posibilidad de contratación, becas de prácticas en empresas de la comarca y un proyecto de ayudas para la consolidación empresarial para personas jóvenes emprendedoras de Mungialdea.

» GAZTEGUNEKO IKASTAROAK

Garagarrian ikastaro bi eskaini dira Gaztegunean.

Lehenengoa *fast fooda* izan da, arin prestatzen diran jatekoak hain zuzen bere. Helburua hau izan zan: askotan arineko jatekoa elikagai osasungarriakaz ez datorrela bat ikastea, baita era horretako janariei uko egin barik osagai natural eta osasungarriei lehentasuna emotea bere. Ikastaroa ez zan egin ez zalako gazte parte-hartzailearik egon, baina aurrerago egiteko gogoia dago.

Bigarrenean, sare sozialetan eduki sortzailea, bideo digitalak egiteko teknikak ezagutzea izan da helburua. Mugikorrek argazki eta bideoak teknologia barrien bitartez editetako programak erabilten ikastea. Ikastaroan, 11 gazte egon ziran, eta oso arrakastatsua izan da, gazteen guriari emon jakelako erantzuna.

» MUNGIROCK LOKALAK 7. URTEURRENA OSPATU DAU

Aurtun, zazpi urte dira Mungirock lokala lekuz aldatu zala, eta, hori ospatzeko, bagilaren 4an, ekitaldi berezia antolatu zan. Urtez urte, musikari askok jo dabe bertan. Egun horretan, barriz, jai-giroaz jantzi zan Mungirock. XXL (punkrock mungiarra) eta Blister Sun (punkrock covers mungiarra) taldeak izan ziran konbidatu bereziak, eta bertaratu zan jentea erakarri eben euren musikeagaz. Ganera, giro ederra sortu eben talde biek.

Mungiar asko joan ziran jaialdi berezira. Gazteak, horren gazte ez diranak eta umetxuak bere egon ziran 7. urteurren bereziaz gozetan.

Aurtun, Mungirock lokalean, areto komertzialetatik kanpo geratzen diran musika-taldeentzako kontzertuez gozetako errea euki dogu: musika-estilo desbardinak, talde sortu barriak eta hasibarriak, bertokoak nahiz kanpokoak.



» Mungiak Bizkaia zeharkatuko dauan “Tour Eguna” txirrindularitza-jaiaren laugarren etapea hartu dau

Frantziako Tourreko Grand Départ Pays Basque izenekoaren aurreko urtean, Bizkaian egingo diran 18 Tour Egunen laugarrena egin da Mungian. Honen helburu nagusia txirrindularitza sustatzea da, kirolaren nahiz mobikortasunaren ikuspegitik, bizikletea garraibide moduan bultzatzeko asmotan. Ekimenari lotuta, familientzako hainbat jarduera eta tailer egin dira Mungian.


Ekitaldian, honako honeetxei emon jake oroitzapen-plakea: Valentin Uriona Txirrindulari Alkartea, herrian kirol hau sustatzeko egiten dauan ahaleginagaitik; Agustin Sagasti txirrindulari mungiarren familiari; eta Marifeli Bengoari, 62 urte izan arren, andren txirrindularitzako ordezkari moduan, pedalei eragiten segiduten dau-eta.

Matxin eta Foruen plazan egin ziran Tour Eguneako tailerrak. Bertaratu ziran guztiek hezkuntza-gelaz gozetako aukerea euki dabe. Adibidez, 14 urtera artekoei txirrindularitzearen, bizikletearen

ezagutzearen eta oinarritzko arauen barri emon jake.

Bizikletak aukeratzeko eta probetako tailerra egon da. Bertan, aditu batek bizikleta-mueteari eta erabiltzaile bakotxarentzako neurri egokienari buruzko aholkuak emon dauz. Gynkanan eta pumptruckean, parte-hartzaileek bizikletan ibilteko esperientziaz gozau dabe. Bestetik, Euskadi Fundazioaren karpan arrabol birtualak egon dira. Bertan, lasterketa baten simulazinoa agertzen izan da pantailan, eta parte-hartzaileek pedalei eragin behar izan deusie saria eskuratzeko.

Mobikortasun-karpan bizikleta elektrikoan ibilteko aukerea eskaini da, eta kontuan hartu beharreko garraibide bihurtu dala esan beharra dago. Bizikleta berezia be egon da urritasunen bat daukientzat. Tourraren museoko karpan, bere historia eta Bizkaia Frantziako txapelketeagaz daukan hartu-emonaz alzu dira.



Mungia acogió la 4ª etapa del “Tour Eguna”, la fiesta del ciclismo que recorre Bizkaia

Mungia impulsa la actividad física y el deporte saludable dentro del proceso educativo de niñas y niños de 4 a 8 años con el programa Kirola Hobetzen

La iniciativa nace como respuesta a la demanda de las AMPAS para el impulso de la práctica de la multiactividad como paso previo a la unideportividad.

Se busca disminuir las conductas sedentarias, incrementar el nivel de actividad física saludable, impulsar la educación en valores, nuestra cultura, el euskara y fomentar la adherencia hacia la práctica deportiva.

» Mungiak jarduera fisikoa eta kirol osasungarria bultzatzen dauz 4-8 urte bitarteko umeen hezkuntza-prozesuan, Kirola Hobetzen programearen bidez

Mungia impulsa la actividad física y el deporte saludable dentro del proceso educativo de niñas y niños de 4 a 8 años con el programa Kirola Hobetzen

La iniciativa nace como respuesta a la demanda de las AMPAS para el impulso de la práctica de la multiactividad como paso previo a la unideportividad.

Se busca disminuir las conductas sedentarias, incrementar el nivel de actividad física saludable, impulsar la educación en valores, nuestra cultura, el euskara y fomentar la adherencia hacia la práctica deportiva.

Joan dan ikasturtean, Mungiako Udalak INTERAMPAS Alkartegaz eta Kirol Kluben Munegane Alkartegaz batera bultzatutako Kirola Hobetzen programeak 2021-2022ko ikasturtean herriko 4-8 urtekoen artean jarduera fisikoa eta kirol osasungarria sustatzea lortu dau

Kirola Hobetzen laguntza eta aholkularitza teknikorako gidaliburu moduan sortu zan, Mungiako neskato-mutikoen jarduera fisikoren eta kirolaren sustapenerako programak gauzatzeko jarduerak antolatzen dabezan eragileentzat. Hori gurasoen alkarrekin eurek eskatu eben, eta udalak eroan dau aurrera.

Hona hemen Kirola Hobetzen ekimenaren helburuak: hezkuntza-prozesu integralerako beharrezkoak diran garapen motorren, kognitiboaren eta sozioafektiboaren oinarriak eregitzea; jokabide sedentarioak gixxitzea

eta jarduera fisikoa osasungarriaren mailela handitzea; eta euskara normalizetako eta euskal kultura hedatzeko tresna izatea.

Programea nabaritasun zientifikoetan dago oinarrituta. Nabaritasun horreen arabera, hainbat kirol-jarduera egiteak hobekuntzak sortzen dauz osasunean, garapenean, errendimenduan eta sozializazioan.

Kirola egitea, osasun-ohiturea

2021-2022ko ikasturtean, 4-8 urtekoak hasi zan eskolako kirol-instalazioetan, ingurune nagusi moduan. Eretxiak sano positiboak dira. Ikasleak eskola-kiroleko etapa honeetarako prestetara da; motibatzailea izatea eta engantxetara. Bestetik, egoera fisikoa garatzea, osasunerako ohitura moduan kirola egitea eta, txikerretarik jardura inklusiboak sustatzea familien zein kirol-alkartein inplikazioaz.

» Aurten barriro Mungiako Nazinoarteko Abesbatzen XX. Topaketeak doinuak beteko dau gure herria

Pandemiaren erruz etenaldia egin ostean, Mungiako Nazinoarteko Abesbatzen Topaketea barriro dator gure herrira. Ekimena JM Arregi Abesbatzearen eta Mungiako Udalaren artean antolatuko da.

XX. edizioa izango dogu, eta, ohikoa denez, zemendiko lehen zapatuan, Tolosako Abesbatzen Lehiaketan parte hartzen dauan korala eukiko dogu geugaz, eta jaialdiari Santa Zeziliaren ohiko kontzertuak emongo deutso amaierara, Mungiako musika-taldeen eskutik: JM Arregi Abesbatza, Gure Ametsa Txistulari Alkartea, Mungialdeko Alaiak Soinulari Alkartea, MMUK Udal Musika Eskolako umeen korua..., besteak beste.

MUNGIKO NAZINOARTEKO ABESBATZEN XX. TOPAKETEA Mungiako Andra Mari eta San Pedro elizan egingo da iluntzeko 20:00etan. Hona hemen egutegia:

Zemendiaren 5ean, Estoniako "Girls Choir of Musamari Choral School" korua izango dogu.

Zemendiaren 12an, Bilboko Akelarre Abesbatza; eta 19an, Santa Zezilia Eguneko Kontzertua izango doguz: JM Arregi Abesbatza, Gure Ametsa Txistulari Taldea, Mungialdeko Alaiak Soinulari Alkartea, MMUK Udal Musika Eskolako umeen korua...



ENCUENTRO INTERNACIONAL DE MASAS CORALES DE MUNGIA

Después de dos años sin celebrarse, vuelve el Encuentro Internacional de Masas Corales de Mungia. La organización del certamen es entre JM Arregi Abesbatza y Mungiako Udala.

Este año 2022 conmemoramos la XX edición. El certamen comienza el primer sábado de noviembre y como es habitual, la apertura del festival se realiza con un coro que participa en el Certamen de Coros de Tolosa, y se cierra con el tradicional Concierto de Santa Cecilia, con grupos musicales locales (JM Arregi Abesbatza, Gure Ametsa Txistulari Alkartea, Mungialdeko Alaiak Soinulari Alkartea, MMUK Udal Musika Eskolako umeen korua...).

» Laster Olalden!!

Mungiako Olalde Aretoko karteldegia prest daukagu momentu onak eskaintzeko.

Zemendiaren 12an, Hodei Magoaren "Sentsazioak" magia-ikuskizunak aho zabalik ixteko moduko ekitaldia eskainiko deusku arratsaldeko 18:30ean.

Hilaren 20an, arratsaldeko 19:30ean, "Bost minututan" antzezlanak izango dogu. Itziar Urretabizkaia eta Andoni Agirregomezkorta Olalde Aretoko eszenatokian agertuko dira, Idoia Bilbaoren zuzendaritzapean.

Gabonetan, abenduaren 26an, ekitaldi berezi-berezia izango dogu Olalde Aretoran; izan bere, "Goazen 9.0!" kontzertuko erritmoek ondo pasetako aukerea emongo deuskue. Emonaldi bi izango dira, arratsaldeko 17:00etan lehenengoa eta 19:00etan bigarrena.

Badakizu, sarrerak aurretiaz gura izan ezker, www.kutxabank.es webgunearen bidez edo orotarako kutxazainetan daukazuz eskuragarri.



» Zergaitik batu materia organikoa?

- » Termostatoa behar dan moduan erregulatzea. Hozkailurako tenperaturarik onena 6°C da, eta -18°C izozkailurako.
- » Materia organikoa konpost bihurtzen danean, baliabideak aurreztu eta lurren kalidadea hobetzen da.
- » Zabortegei edo hondakin-erretokira doazen hondakin biodegradagarriak murrizten dira.
- » - Berotegi efektuko gasen isuriak gitxitzen dira.

ZER sartu eukiontzi marroian?

- » Animalia-jatorrizko hondakin prestauak & gordinak (okelea, hestekiak, arrain eta itsaskiak, arrautzen hondakin eta azalak, hazurrak eta gaztaia).
- » Landare-jatorrizko hondakin prestauak & gordinak (barazkiak, lekaleak, frutea, pastea, arroza, haziak, ogia, gailetak, opilak, fruitu lehorrak, azalak, fruta-hazurrak, infusinoen boltsatxuak, kafe-hondakinak eta kortxo naturalezko tapoiak...).
- » Sueteko papera, paperezko zapiak eta mahai-oihalak, kartoizko arrautza-kutxak eta kartoi ondulatua; beti bere tintatubakoak, erabiliak eta materia organikoaz lohituak diranean.
- » Izozkietako euskarriak, broxetetako eta hortzetako zotzak eta antzekoak.

Baratzea edo lorategia badaukazu: ez sartu bedarra eta inausi-hondarrak udaleko eukiontzian, udal-zerbitzua kolapsau egingo dozu-eta. Konpostatu hondakin horreek zeure lorategian!

Zelan egin?

Suetean... Hondakin organikoak ontzi aireztatuta botako doguz boltsa konpostagarriaren barruan.

Boltsa konpostagarriak materia organikoaz egindakoak dira, eta hondakinakaz batera deskonposatzen dira.

Kalean... Boltsa ondo zerratuta itxi eukiontzi marroian, eukiontzia giltzaz zabaldu behar da.

Parte hartzeko. HAZ bulegotik pasa!!



¿Por qué la recoger la basura orgánica?

- » Ahorro de recursos, al transformar la materia orgánica en compost mejorando la calidad de las tierras.
- » Reducción de residuos biodegradables en los depósitos controlados e incineradoras.
- » Disminución de la emisión de gases de efecto invernadero.

¿QUÉ meter en el contenedor marrón?

- » Restos de origen animal cocinados o crudos (restos de carne, embutidos, pescado y marisco, restos de huevo y sus cáscaras, huesos y queso).
- » Restos de origen vegetal cocinados o crudos (restos de frutas, verduras, legumbres, hortalizas, pastas y arroces, semillas, pan, galletas y bollería, frutos secos y sus cáscaras, huesos de fruta, tapones de corcho natural, posos y filtros de café, bolsitas de infusiones, etc.).
- » Papel de cocina, servilletas, manteles y hueveras de cartón y

cartón ondulado que no estén tintados, todos ellos cuando estén usados y sucios (impregnado de materia orgánica).

- » Palillos para brochetas u otros alimentos, palos de helado y similares.
- » Con huerta o jardín: No meter la hierba y poda en el contenedor para no colapsar el servicio municipal. ¡Compostar esos restos en el propio jardín!

¿Cómo hacerlo?

- » En la cocina ...Depositar los restos orgánicos en un cubo aireado dentro de una bolsa compostable.
- » Las bolsas compostables están hechas de materia orgánica y se descomponen junto con los restos de materia orgánica
- » En la calle... Depositar la bolsa bien cerrada dentro del contenedor marrón, que se abre con llave.
- » ¡Participa! Infórmate en la Oficina de atención Ciudadana

Pil Pilean

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra



MUNGIA
UDALA

www.mungia.eus



ARGITARATZAILEA:
MUNGIAKO UDALA: Trobika, 1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16
komunikazioa@mungia.eus / www.mungia.eus

ALE KOPURUA: 7.000 • LEGE GORDAILUA: BI-2224/2012

